

Mikel Zurkano

EHUKO EKONOMIA IRAKASLEA

Euroaren ajea

Finantza erregulaziorako asmo xumeak ahitu dira eta rating agentziek eta finantza erakundeek lehengora itzulita finantza merkatuen nagusitasuna berreskuratu dute. Eragile hauen agenda, prozedurak eta lehentasunak antzestoki makroekonomiko globala inoiz baino indartsuago baldintzatzen dute eta horrekin krisiaren bidezko irtenbidea bera ere. Egoera honi aurre egiteko gobernanta globalaren gabezia bistakoa da eta koordinaziorik zein berrikuntzarik gabeko barne neurrietara makurtu dira estatuak. EBn Greziaren finantza larrialdiari aurre egiteko erreskate plana hitzartu berri da azken unean, euroak jasandako eraso espekulatuaren segida batek hartara beharturik.

Krisiak Europaren eraikuntza neoliberalaren berezko tentsioak leherrarazi ditu, herrialde batzuk (Grezia eta Espainia barne) Hazkundea eta Egonkortasun Itunaren mugak gaindita finantza eragileen erasoak jasan eta gero. Lehen Alemaniari edo Frantziari malgutasuna eskaini zitelarik oraingoan Brusela bestela jokatzeko ari da. Grezian austeritate plan oso zorrotza jarri du indarrean dirulaguntzen ordain gisa, NMFarekin batera. Lehendik garapen bideko herrialdeetan porrot egindako doikuntza planen errepika baino ez da hau. Plan horien neurri liberal zorrotzak ez



DANI BLANCO

ezik emaitza ere ezaguna da, austeritate ekonomikoa eta finantzen nagusitasun osoa. Oso errezeta arriskutsua ikuspegi sozialetik eta antzua krisia gainditzeko. Duela lau urte Egonkortasun Itunaren gainetik pasa ondoren Alemaniak euroaren logika zorrotza aplikatu nahi izan du, orain Grezia Europako gobernuetan indarrean jarriko diren austeritate planetarako laborategi gisa erabilita eta, bide batez, Alemaniako bankuek eskuratutako greziar bonoen ordainketa ziurtatzen dute.

Testuinguru honetan eta erasoak jasan ondoren, Zapateroren gobernuak ere larritasunetik ateratzeko erakunde multilateralen eta finantza lobbyen errezetak aplikatzen hasi da. Bere programa ekonomikoaren izaera liberala areagotzen ari da, orain arteko egitasmoen —bankuentzako erreskatea, austeritate fiskalarena, eta abar— zatikako erreforma liberalak

(pentsioena eta lan merkatuarena) gehituz. Lehengo lepotik burua, krisia sorrarazi zuen eredu inoiz baino biziago dago EBn, Trichet eta bertako finantza erakundearen esanetara jarrita Bruselak ez du iragarritako neurririk hartuko, ezta bankuen erreskaterako tasa ezartzeko ere. Beraz, bankuen erreskaterako orain arte erabilitako EBko BPGaren %13 denon artean ordaintzen jarraitu beharoko dugu. ■

Lehengo lepotik burua,
krisia sorrarazi zuen eredu
inoiz baino biziago
dago EBn

TXANDAN

Igor Estankona



Antza denez ekonomiagatik, nahasketak ekiditeko eta erakundearen irudi politika argiagotzeko izan dadin, Euskal Herriko Unibertsitateak euskarazko akronimoak soilik erabili gura lituzke. Horra arte normal iritzi diot nik behintzat, izenaren zehaztasuna gorabehera. *El Correo Español*ekoek diote, ostera, “Hezkuntza Sailak izenetik erdarazko siglak kentzeko UPVren proposamena arbuia” duela. Euskarazko siglak inoiz erabili ez dituztenentzat, kazeta barne, terriblea izan behar du horrek benetan: horiek kenduz gero siglarik gabe adierazi beharko lukete unibertsitatearen izena. Eta ez da erraza.

UPV/EHU

Baina kontraesanak ekiditeko kazetariok hasi dira sartzen, auziari buruzko egunkari-albistee-tan, lehenengoz, “UPV/EHU” izendapena, barra eta guzti. Master eta negozioetarako beti errespetatu izan dute, egia esan behar bada.

Ikusmin soziologiko sanoarekin jarraitu ditut kazetari elebakarraren peripeziak egunokaz. Trilinguismoa ahotan, dio, gauzek ez ote duten luzatzeraz jotzen gaur egun, laburtzeraz baino gehiago. Entzun dudanez, euren tirada ei da gero eta laburragoa. Ez nau harritzen. Bizkaitarroi adarra jotzen ibili dira ehun urtez, eta ez da gaitzik ehun urteko aldiak ez daroanik. ■